

-IDIAZABAL, Itziar. & BARREÑA, Andoni. (arg.) (2009) ***Irakasteredu elebidunetan eta euskararen azterketan (iker)molde berriak***, Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, BILBO ISSN 0210-1564

Liburuaren aurkezpena: Euskaltzaindiaren egoitza nagusian, Plaza Barrian, Bilbon, 2010eko urriaren 18an.

Euskaltzaindiaren agerkaria den EUSKERA 54, 2-1.zatia da Andoni Barreña eta biok koordinatu dugun liburukia eta hemen aurkeztu nahi dizuedana. Barreña eta biok zenbait ikerketetan oinarritzen diren 11 lan bildu ditugu. Horiekin batera hiru liburu-aipamen aurkituko ditugu Euskararen ale honetan. Biziki interesgarriak hirurak, Pruden Gartziairen bi eta Andres Urrutiarena bestea.

Euskaltzain urgazle naizen aldetik 2008an, udaberri aldera uste dut, jaso nuen konbitea euskaltzain buruaren gutun baten bitartez, *Euskera aldizkariak* Euskaltzaindiaren zuzeneko lanez gain, asmoa zuela adieraziz, urtero, era monografikoan, beste lan batzuen berri ere emateko. Konbite horri helduz egin genuen proposamena, Gutxi-gora-behera liburuki honetan aurkitzen diren lanak biltzen zituenena. Egitasmoa bat-batean onartu zuen Andres Urrutiak berak eta eskuartean genituen lanak moldatzeari, egokitzeari ekin genion egileek. Lanak 11 izan arren, egileak 19 dira, izan ere lan gehienak taldeko lanak baitira.

UPV/EHUko Gasteizko Letren Fakultatean biltzen garen HIJE (Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera www.elebilab.com) ikertaldeko eta Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrako (www.unesco-hizkuntza-katedra.ehu.es) partaideak gara egile gehienak. Nolanahi ere, UPV/EHUko partaideez gain badira Mondragon Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolako eta Salamancako Unibertsitateko ikerlari kideak ere.

Izenburuak ***Irakasteredu elebidunetan eta euskararen azterketan (iker)molde berriak*** argitalpenaren edukia laburbildu nahi luke.

Euskal elebitasuna eta eskolaren ardatza euskararen azterketarekin uztartzen da, uste baitugu euskararen ikas-irakas prozesua aztertzeak eginkizun horretarako erabiltzen den hizkuntza bera ere moldatzen duela eta bide batez hizkuntza-ekintza horiek ulertzea ezinbestekoa dela ikusmolde berri (egokiago) batez euskara aztertzeke. Euskara eta bere irakaskuntza modu berrituan, egokiagoan, ikertzeke ahalegina egitea izan da helburu nagusia. Eginkizun horretarako

Hizkuntzalaritza, testu/diskurtsuan oinarritua, Luis Mari Larringanen lanean ikus dezakegu, liburuaren hasierako multzoan, "Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza" izenburuarekin. Hizkuntzaren ikusmolde berbera du Ines Garcia Azkoaga eta Leire Diaz de Gereñuren lanak "Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena". Ildo beretik, **bereziki ahozkoa** lantzen duten beste hiru lan monografiko ageri dira azken atalean: Alaitz Alegriaren "Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai", Josune Zabalaren "Kortesiaren azterketa euskarazko bi debateetan" eta Larraitx Zubeldiaren "Omen'en zalantzak argitu nahian".

Didaktika/Hizkuntzen irakaskuntza da beste ardatza eta hemen nagusiki bi lan dauzkagu: liburuari hasiera eta kasik izenburua ere ematen dion lana, Itziar Idiazabal & Ibon Manterolarena "Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa" eta Mondragon Unibertsitaeko HUHEZIKo talde ia osoaren, (Matilde Sainz, Eneritz Garro Arantza Ozaeta, Karmele Perez eta Diego Egizabal) lana: "Gelako interakzioa: irakasleen esku-hartzea eta ikasleen ahozko ekoizpena. Jolas arauen azalpena Lehen Hezkuntzako ikasleen eskutik"

Psikolingüistika, haurren hizkuntza jabekuntza da bereziki lantzen den eremua hurrengo lanetan: (Andoni Barreña & Iñaki Garciak "Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebakarrengan eta elebidunengan", Marijo Ezeizabarrena, Leire Beloki & Ibon Manterolaren "Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika-kasak haurren ipuin-kontaktetan" eta Margareta Almgren, Itziar Idiazabal eta Ibon Manterolaren "Euskararen irakaskuntza H1 eta H2 gisa 5 eta 8 urte bitartean"

Soziolinguistika da liburu honetako beste ikerlerroa eta horren erakusgarri Esti Amorrortu eta Ane Ortegak idatzitako lana: "Zergatik eskolatzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?"

Lan guzti hauek ikerketa enpirikoan oinarrituak dira eta hemen aurkeztu aurretik bestelako ebaluazioak ere jasotako lanak (Ikerkuntza gaitasuna, kongresuetako ebaluatzaileak, tesiak,...), eta horrek ere beste berme bat ematen die lanei.

Ez dira oso ohiko gaiak Euskaltzaindiaren lan eta argitalpenetan, ez dira corpus-plangintza motako lanak, ez lirake status-plangintza ere zuzen-zuzenean, baina Andres Urrutia Euskaltzain buruak berak liburuki honetan bertan argitaratzen duen liburu-aipamenean dioen bezala, Fishman handiaren hitzak jaso, "corpus planing is full of

intimations of status-planing goals and aspirations. There is no (and there can be no) sharp division between these two pursuits when they are both addressed from the point of view of intrasocietal definitions of what it is that corpus planing is really about functionally speaking, insofar as the wishes of its sponsoring community and their authority. "(901) bi alorrak ezin dira zehazki bereizi, eta garrantzitsuena ez da berezitzea, baizik eta azken batean gizarte batean hizkuntzaren funtzionaltasunari (indartzeari, normalizatzeari, erabiltzeari) begira dauden asmoak nola betetzen diren jakitea. Eta euskalgintzaren asmo hori da, azken finean, liburu honetako ekarpenen xede nagusia.